

misma de las aguas; se mecen y commueven al más leve contacto ó soplo del viento.

Sin embargo, ¿no hay alguna explicacion más bella, más poética más tierna y simpática que recuerde á los dos amantes que perecieron en el Uchin?

Sí que la hay.

Los habitantes de aquellos contornos la conservan desde los más remotos tiempos en la memoria. Dicen que los dos bellísimos meteóros que á veces se separan y á veces se juntan; que á veces permanecen formando una sola luz y en otras se ocultan largos instantes, son las almas de Uda é Iziar que así refieren la historia de sus amores. Que cuando se reunen, es para abrazarse y besarse:—que cuando se separan, es para dar mayor impetu á su cariño;—y que cuando se ocultan y vuelven á aparecer, es para enseñar á quienes les contemplan, que nunca, ni aún despues de la muerte, pueden estar separadas dos almas que bien se amaron en el mundo.

JUAN E. DELMAS.

## UMILLTASUNA ETA ARROKERIA.



Lenengoa da andia,  
Bigarrengoa chikia,  
Alkarren desbardiñak,  
Bata birtute zuzenak  
Bestea griña okerrak  
Diralako egiñak.

Arek nai dau beera jatsi,  
Izan arren berez andi,  
Onek nai dan besterá,  
Orresegaitik mundua  
Ta bere bizi modua  
Dakustaz goyaz beerá.

Agaitik neban ikusi,  
Edo buruz irakurri,  
Oraingo komediá,  
Egiaz ez da jazua;  
Benetan ez gertatua,  
Baña da irudiá.

Nun dan garbiro ikusten,  
Nun biziro azalduten,  
Zeñ dan on, zeñ okerrá,  
Zeñ ipuiñ izanagaitik,  
Berba neurtuz orregaitik,  
Nua eskribitzerá.

Erregetzat nai ebela,  
Deitu eben beiñ batera,  
Lorak igazko udán,  
Klabel bat chito dontsua  
Ta birtutez apaindua  
Ikusi ebeneán

Zerren Errege antzera  
Jayokeratik soñera,  
Eukan granaz josiá,  
Gañera buruan oso  
Inotzezkoa donoso  
Koroe bat argiá.

Lorarik onenak eutsen  
Itzal andi bat artuten,  
Sartaiseak agurtú,  
Bedarrik usaitsuenak  
Eztitsu ta bikaiñenak  
Gura eben serbidú.

Alan ikusi zanean,  
Nagusi danen gañean,  
Artu eban usteá,  
Lorarik egokiena  
Birtutez apainduena  
Andratzat artutene.

ZabaLdu zan dierrira,  
Berealaše guztira,  
Zertan Errege joián,  
Lora askok zelan jakin,  
Arrotutene buruakiñ  
Laster abian zirán.

Zeñ baño zeñ ederrago  
Eutsen guztiak erago,  
Ziztrinchoenak beré.

Buruak jaso egiñik,  
Zarden zuzen eregirik  
Jarri ziran dotoré.

Erregiña izatera  
Nai zan moduren batera,  
Dotoreturik igó,  
¡O lora buru ariñak  
Orrelako alegiñak  
Uts deutsue urtengó!

Errege bere kortiaz  
Bajoain erabilliaz  
Bazterrak erresumán  
Nun illunkera batean  
Gorderik lora artean  
Loracho bat dakusán.

Zeñek eutsan biotzean  
Malluka baten antzean,  
Egiñ alako mallá,  
Baita itanduten dotsa  
Ezin eroanik poza  
«¿Lorachoa nor zará?»

- ¿Zertan zagoz añ isillik?
- ¿Zertan egin baga itzik?
- ¿Zertan zara estutú?
- ¿Zertan zuk bildurtu baga?
- ¿Zertan dakizun erara?
- ¿Zertako ez mintzatú?

Lorachoa izuturik  
Aurkitzen zan mututurik,  
Asmau eziñik itzá,  
Alako batean nekez  
Erdiak esan eziñez

Onelanche dirautsá.  
 . . . . .

«Ni naz bai bioleta,  
 Loracho bat umilldea  
 Ene Jaun itzaltsuá,  
 Nago emen ezkutuan,  
 Garbi ta umill munduan,  
 Gorde nairik buruá.  
 . . . . .

—«Sinisten dot zareala  
 Birtutetsua zu bada,  
 Bioleta umillá,  
 Orregaitik Erregiña,  
 Nai zaitut jarri egiña  
 Zatorkit jauregirá.

Puskacho bat au entzunik  
 Geratu zan nasaiturik,  
 Alanbere begiák,  
 Lurreruntza biurturik  
 Erdi ichi ta baturik,  
 Eukazan lotsaz biák.

Zenbat zan au umillago  
 Aurkitzen zan itsuago,

Beragaz Erregeá,  
 Orra nun daben zabaltzen  
 Aiše bigun batek laster,  
 Nogaz zan ezkontzeá.

Esanaz Errege, ala,  
 Umilltasunak ebala,  
 Bioletachoagana.  
 Etsigi ta zoratú.  
 Urrengoko egunean,  
 Edo biaramonean,  
 Katolikoen legean,  
 Zala eingo ezkondú,  
 Lora arroak zirean,  
 Orduanche umilldú.

Ezagutu eben bada  
 Arrokeria zitala,  
 Gorrotagarria zala,  
 Eta andik aurrerá,  
 Izango zala obea,  
 Aukitzeko suertea,  
 Ezkutuan bizitea,  
 Bioleten antzerá,  
 Ichirik alde batera  
 Piesta ta plazaé.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.